

**Gipuzkoako
Aldizkari
Ofiziala**



**Boletín
Oficial de
Gipuzkoa**

178

2021eko irailaren 16a, osteguna

2

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzua

2021eko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ordainaldiaren iragarkia.

Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuburuak, honako ebazpen hau eman du:

Donostian, gaurko datan, eta indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, ondoko hau,

EBATZI DUT

Zergadunei eta gainerako interesatuei jakinaraztea Abaltzisketa, Aduna, Aizarnazabal, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Antzuola, Arama, Aretxabaleta, Asteasu, Ataun, Aia, Azpeitia, Beizama, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Zegama, Zerain, Zestoa, Zizurkil, Elduain, Elgeta, Eskoriatza, Ezkio-Itsaso, Gaintza, Gabiria, Getaria, Hernialde, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Mutiloa, Olaberria, Oresa, Orio, Ormaiztegi, Soraluze-Placencia de las Armas, Errezil, Leintz-Gatzaga, Segura, Zaldibia, Mendaro, Baliarrain, Orendain, Altzaga eta Gazteluko udaletako 2021eko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren borondatezko epealdiko kobrantza kanpaina 2021eko urriaren 1etik 2021eko azaroaren 10era egingo dela, biak barne.

Aurtengo irailaren 15a baino lehen helbideratutako ordainagiriak entitate finantzarioen kontu korranteetatik kobratuko dira zuzenean, ordaintzeko borondatezko epea amaitzen den egunean.

Helbideratu gabeko ordainagiriak harreman elektronikoak izatera behartuta dauden pertsona eta entitateei edo bidalketa mota hau aukeratu dutenei komunikazio elektroniko bitartez igorriko zaie 2021eko urriaren 1etik aurrera. Gainontzeko zergadunei urrian zehar ordainagiria bidaliko zaie adierazitako zerga helbidera posta bidezko komunikazioan. Ordainketa entitate laguntzaileen bidez (banku, aurrezki kutxa eta kreditu kooperatiba) egin beharko da, eta horretarako ordainagiria aurkeztu beharko

da.

Urriaren 20a iritsi eta zergadunak ez badu ordainagiria etxean jaso, hurrengo bulego hauetako edozeinetan eskatu beharko du:

- Donostiako Herritarren Arretarako Bulegoa: Okendo, 20.
- Donostiako Herritarren Arretarako Bulegoa: Errotaburu Pasealekua 2.
- Irungo Herritarren Arretarako Bulegoa: Francisco de Gainza, 1.
- Eibarko Herritarren Arretarako Bulegoa: Arragueta Kalea, 2.
- Azpeitiko Herritarren Arretarako Bulegoa: Julian Elortza Etorbidea, 3.
- Tolosako Herritarren Arretarako Bulegoa: San Frantzisko Pasealekua, 45.
- Bergarako Herritarren Arretarako Bulegoa: Toki-Eder Plaza, 5.

Jendaurreko ordutegia, larunbatetan eta jaiegunetan ezik, honako hau izango da: 8:30etatik 14:00etara, beti ere, aurretiazko hitzorduarekin.

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren aurtengo kanpainan ordaindu behar direnen ordainagiriak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan «udal zergen ordainagiriaren kontsulta» apartatuan egongo dira zergadun guztientzako: (<https://www9.gipuzkoa.eus/WAS/HACI/WATGipuzkoatariaWEB/inicio.do?app=HTL&idioma=E>).

Borondatezko kobrantza epealdia amaitu eta zergadunek zorrak ordaindu ez badituzte, zorrak premiamenduzko prozeduraz exijituko dira, eta epe exekutiboko errekarquak, berandutza interesak eta, hala badagokio, kostuak sortuko dira.

Andoain, Arrasate, Astigarraga, Azkoitia, Beasain, Bergara, Deba, Donostia, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Ibarra, Idiazabal, Irun, Lasarte-Oria, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Lezo, Mutriku, Oiartzun, Oñati, Ordizia, Pasaia, Tolosa, Urnieta, Urretxu, Usurbil, Villabona, Zarautz, Zumaia eta Zumarragako udalek beren gain hartua dute, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren indarrez, bertako jarduerak ekonomikoen gaineko zerga borondatezko epealdian kobratzeko eskumena.

Donostia, 2021eko irailaren 3a.—Juan Miguel Mendizabal Eguibar, Udal Zergak Kudeatzeko zerbitzuburua.

(5961)